SOZIOLINGUISTIKA INKESTAK – IPAR EUSKAL HERRIA

(1) Hizkuntza gaitasuna

1991, 1996, 2001, 2006, 2011 eta 2016ko inkesten emaitzak

Jendetza 16 urte eta +	*zuzendua* 1. 1991 208.900	2. 1996 212.400	3. 2001 221.600	4. 2006 230.200	5. 2011 238.360	6. 2016 249.440
Euskaldun hiztunak	*59.900* *% 28,7*	56.100 % 26,5	54.600 % 24,7	51.800 %22,5	51.100 % 21,4	51.200 % 20,5
Euskaldun hartzaileak	*17.900* *% 8,5*	19.800 % 9,3	26.400 % 11,9	19.800 % 8,6	21.700 % 9,1	23.300 % 9,3
- - - - - - - -	- - - - - - -	- - - - - - -	- - - - - - -	- - - - - - - -	- - - - - - - -	- - - - - -
Euskaldun nolazbait	*77.800* *% 37,2*	*75.900* *% 35,8*	*81.000* *% 36,6*	*71.600* *% 31,1*	*72.800* *% 30,5*	*74.500* *% 29,8*
Erdaldunak	*151.100* *% 62,8*	136.500 % 64,2	140.600 % 63,4	158.600 % 68,9	165.560 % 69,5	174.940 % 70,1

Oharrak

Lehen inkestaren zuzenketa

Emaitza ofizialak – herritarrak 208.900 (>16 urte) - euskaldunak 69.100 (%33,1) – hartzaileak 14.700 (%7,0) - erdaldunak 125.100 (%59,9).

Nabari da 1991ko emaitza ofizialak gizenegi zirela : ez da posible 5 urtez 13.000 euskaldunen galtzea; gainera 25 adin-taldeen teilatua egiten delarik, 1. inkestako emaitzak auzoko adin-taldeenak baino gorago dira.

Zuzenketa egin daiteke adin-talde bakoitz berriz kontatzen baita 10 edo 15 urteren buruan. 2. kontaketako ehunekoak 1. inkestako jendetzari aplikatuz, 1991ko euskaldungoa jautsi da 70.000tik 60.000ra, kopuru hau sinesgarriago delarik.

Hiztunen bilakaera

25 urtez jendetza goratu da 40.000 herritar gehiago, eta euskaradunen kopurua jautsi 8.700 gutiago, hots urtero 350 gutiago. Ulergarri da, kanpotik erdaldun anitz etortzen baita, hemengo sortzeak ez direlarik nasaiak.

Euskaldun hartzaileak 5.400 gehiago dira. Baina nolazbaiteko euskaldunak %30 baino gutiago dira lehen aldikotz.

Erdaldunen kopurua emendatu da 24.000 hiztunez, halere jendetza baino askoz gutiago.

Azken bost urte hauetan

Orain arte euskaldunen kopurua beti gutitu da inkesta batetik bestera. Azken. inkesta honetan (2016) euskaldunen kopurua doi bat emendatu da (100) eta euskara ulertzen dutenen kopurua askoz gehiago (1.500).

Ondorioz nolazbaiteko euskaldunak 1.700 gehiago dira. Erdaldunak ere 9.000 gehiago dira, jendetza 11.000 herritarrez emendatu baita, gehienak kanpotik etorriak.

Euskaldunen kopurua inkesta batetik bestera Ipar Euskal Herrian



Hizkuntza gaitasuna adin taldeen arabera

1991. urteaz geroztik, inkesta bat egiten da bost urtetarik ikusteko zertan den euskaltasuna hiru lurraldeetan eta 16 urtez goragoko jendetzan. Ekain honetan eskuratu ditugu Ipar Euskal Herriko emaitzak 2016. urterako. Lehen irakaspena, euskaldunen kopurua emendatu dela, orain arte 20 urtez beti gain behera jautsi delarik.

Har ditzagun zenbaki zenbait :
- Iparraldeko 300.000 herritarretan 250.000 dira 16 urtez gorakoak.
- Euskaldunak 51.200 gara, duela bost urte baino 100 gehiago.

- Erdi-euskaldunak 23.300, 1.500 gehiago. (Euskara ulertzen, ez ongi mintzatzen).
- Erdaldunak 175.000 dira, 9.000 gehiago, jendetza ere 11.000 herritarrez emendatu baita, kanpotik jin direnekin.

Beraz aitzinatzen ala gibelatzen ari gara ?

Euskararen bilakaera neurtzeko inkesta bakoitz sei adin-talde konparatzen dira, 65 urte eta gehiago, 50-54 urte, 35-49 urte, 25-34 urte eta 16-24 urte. Hor ditugu beraz aitatxi-amatxiak, burasoak eta gazteak, baina ez eskoletako ikasleak. Adin-taldeak konparatzeko ehunekotan ariko gara, multzo baikoitzean 100 herritarren artean zenbat euskaldun.

Ikus 1996ko eta 2016ko adin-taldeak, 20 urteren artekarekin.

- 1996an : %37,6 - %31,8 - %27,4 – %13,6 - %11,3.
- 2016an : %28,1 - %21,3 - %14,6 – %15,7 - %18,9.

Lehen zaharrago eta euskaldunago, gazteago eta erdadunago. Oraingo burasoak eta beren seme-alabak gazteago eta euskaldunago dira. Euskararen jarraipena dinamikaz aldatzen ari da familiari eta eskolari esker : ikastolek 58 urte dituzte eta ikasgela elebidunek 35 urte.

Iragana geroaren seinale.

Ikusi nahi badugu euskaldungoa zeri buruz ari den, emaitzak ahal bezain urrunagotik hartu behar ditugu. Kasu harrigarriko zenbaki zopa jastatu behar dugu. Inkesta bakoitz 5 adin-talde. 6 inkestetako 30 adintaldeak zerrendatzen baditugu ordena kronologikoan zer agertuko da ? Lehen inkestako lekuko zaharrena 1910ean sortua zen eta 6. inkestako lekuko gazteena 2000. urtean. 25 urte hauetako ikerketekin euskararen 90 urteko historia konda dezakegu.

Lehenik ehunekoen taula. Teilatuaren itxura du, adin taldeak doi bat kurutzaten baitira bat bestearen gainean, teilak teilatuan bezala eta gainera adin-talde berak berriz kondatzen dira 10 edo 15 urteren buruan. Adin-taldeak zerrendatuak dira erdiguneko sorturteen ordena kronologikoan. Hasian hasi 3 eskualdeetako emaitzak ere zerrendatuak dira : - BAB Baiona, Angelu, Biarritz, Bokale, - Lapurdi ken BAB, - Baxenabarre eta Zuberoa elkarrekin.

Inkestak ehunekotan

Legendan, zenbakiek inkestak adierazten dituzte eta hizkiek adin-taldeak.
- 6 inkestak : (1-) 1991, (2-) 1996, (3-) 2001, (4-) 2006, (5-) 2011 (6-) 2016.
- 5 adin-taldeak : (-A) >65 urte, (-B) 50-64, (C) 35-49, (-D) 25-34, (-E) 16-24 urte.
- Adin- talde bakoitzean erdiguneko sorturtea emana da. Azpimarraturik bi inkesta ezberdinetan agertzen direlarik.

Adin-taldeen teilatua ehunekotan.

Inkesta Sorturtea +/-	(1-A) 1919	(2-A) 1924	(3-A) 1929	(1-B) 1934	(4-A) 1934	(2-B) 1939	(5-A) 1939	(3-B) 1944	(6A) 1944	(1-C) 1949
Iparralde BAB Lapurdi barne Baxena. Zube.	39 16 51 73	38 11 45 80	36 11 45 80	39 16 51 75	32 12 39 75	32 12 34 71	31 12 36 70	30 12 34 71	28 12 32 65	32 13 42 60

Inkesta Sorturtea +/-	(4-B) 1949	(2-C) 1954	(5-B) 1954	(3-C) 1959	(6-B) 1959	(1-D) 1962	(4-C) 1964	(2-D) 1967	(5-C) 1969	(1-E) 1971
Iparralde BAB Lapurdi Baxena. Zube.	27 13 30 60	27 11 24 55	24 11 26 57	23 11 24 55	21 09 22 52	27 11 36 52	18 07 18 50	14 02 14 41	15 05 15 45	20 07 24 31

Inkesta Sorturtea +/-	(3-D) 1972	(6-C) 1974	(2-E) 1976	(4-D) 1977	(3-E) 1981	(5-D) 1982	(4-E) 1986	(6-D) 1987	(5-E) 1991	(6-E) 1996
Iparralde BAB Lapurdi Baxena. Zube.	12 02 14 41	15 05 16 40	11 03 15 33	12 03 15 34	12 03 15 33	14 05 18 32	16 07 21 30	15 06 20 32	18 08 24 32	19 06 25 34

Ikus ehuneko hauen grafikoa.

Hizkuntza gaitasunaren kurbak Ipar Euskal Herrian



Kurben irakurketa

Ipar Euskal Herriko euskaldungoaren kurba ilunaren bidez belaunaldien jarraipena azter dezakeku. Har ditzagun 24 urteko belaunaldiak. Euskaldun dira %191924an sortuak direnak euskaldun dira %38. Guraso bilakatu direlarik 1949an, beren "baby boom" famatuari euskara transmititu diete %27. Belaunaldi honen haurrak euskaldun dira %12, 1977 inguruan, eta hemen dago Iparraldeko euskaldungoaren zilo beltza. Aldiz belaunaldi erdaldundu honetan gazteak euskaldun dira %19 eta haurrek eskolan euskara ikasten dute %35ek ikastoletan edo ikasgela elebidunetan eta %45ek ama-eskoletan. Oraindik bidea luzea da : EAEn 16-24 urtekoak euskaldun dira %60 eta gazteagoak %75.

Laburbilduz, Iparraldean 30 adin-taldeak kontuan hartuz ageri da ehunekotan euskaldungoa jautsi dela 1929 eta 1976 artean %36tik %11 arte, 50 urtez 25 puntu galduz (urtero puntu erdi bat bataz beste). 1981ean kurba gorantz abiatu da, 15 urtez %7 irabaziz (urtero puntu erdi bat bataz beste). Hots gaur egun, 16-24 urtekoen %19arekin, 1964ko heinean gara eta gorapenerako bidean.

Baxenabarre-Zuberoko euskaldungoaren kurba urdina gain behera doa, 1929ko %80tik 1986ko %30 arte. Beraz 60 urtez euskarak 50 pundu galdu ditu. Orain kurba maldan gora abiatua da, 10 urtez 4 pundu irabaziz (1996koak %34 euskaldun).

Lapurdi barnearen kurba horia gain behera doa 1929ko %45etik 1969ko %15a arte (40 urtez 30 puntu galduz). Gero kurba ordokitu da 12 urtez. Petik gora abiatu da 1982az geroztik, 15 urtez 10 pundu irabaziz (%25 euskaldun oraingo 16-24 urtekoetan). Ohargarri da Lapurdi barnearen kurba eta Ipar Euskal Herri

osoarena berdintsuak direla ehunekotan, euskara dakitenen kopuruengatik (BABn 9.000, Lapurdi barnean 26.000, Baxenabarre-Zuberon 16.000)

BAB hirigunean euskararen kurba apal egon da 1981 arte (%11tik %3ra). Gero doi bat petik gora abiatu da 15 urtez 3 pundu irabaziz (%06 euskaldun 16 urtekoetan).

Behin-behineko gogoeta

Ezin da erran, euskara indartsu denik Ipar Euskal Herrian. Konparaketa egin dezagun Euskal Autonomia Erkidegoarekin. 1991 eta 2016 artean, 25 urtez 212.000 euskaldun gehiago dira, %24tik %33ra iganez. Hemen, denbora berean, 8.700 euskaldun gutiago gara, %30etik %20,5era jautsiz. Beraz araberan, han eta hemen, alderantzizko bidea egin du euskaldungoak, gure kaltetan zorigaitzez.

Gauzak hurbilagotik aztertu behar ditugu, Ipar Euskal Herriko euskaldungoaren ahulgunea, bai eta indarguneak ere neurtuz. Ondoko kroniken gaia izanen da adibidez euskararen erabilera eta hizkuntzen familia bidezko transmisioa.

Erramun Bachoc, 2016-07-15